

# EAEko sektore publikoaren fakturazio elektronikoaren zerbitzua

Gida azkarra

---

Enpresa anitza



## Tabla de contenidos

1.	SARRERA.....	3
2.	EREMUAK ETA FUNTZIONAMENDU OROKORRA:.....	4
2.1	EREMUAK ETA FUNTZIONAMENDU OROKORRA:.....	4
3.	KONFIGURAZIOA.....	4
3.1	ERABILTZAILEAK.....	5
3.1.1	<i>Baimenak aldatzea</i> .....	5
3.1.2	<i>Erabiltzaile berriei alta ematea</i> .....	6



## 1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren fakturazio elektronikoaren zerbitzuko web-atariaren gida azkar hau (aurrerantzean web-ataria), enpresa anitzetako erabiltzaileen funtzionaltasunaren ingurukoa, hainbat enpresetan ahaldun bera duten.

Lehenago Eusko Jaurlaritzako fakturazio elektronikoaren plataformak ez zuen onartzen NAN bereko erabiltzaile bat hainbat enpresetan erregistratuta egotea. Hobekuntza honekin jada egin daiteke.


Plataformaren erabilpenerako erreferentzia azkar bat eskaintzea da dokumentu honen helburua.

## 2. Eremuak eta funtzionamendu orokorra:

### 2.1 Eremuak eta funtzionamendu orokorra:

- Ahaldun berarekin bi enpresa edo gehiago:
  - o Bi enpresek edo gehiagok ahaldun bera izan dezakete eta ohiko prozedura jarraituz, alta eman.
  - o Hau gardena izango da hornitzaileentzat.
  - o Ahaldunaren NANA automatikoki lotuko da plataforman alta ematen duten enpresa guztiekin, ziurtagiri elektronikoaren informazioan ahaldunak NAN bera duenean/NAN bera badu.
  - o Enpresatako edozein plataforman sartzekoan, Ahaldunaren NANA balioeztatuko/egiaztatuko da ziurtagirian, horrela erabiltzailea enpresa batetik bestera erraz alda daiteke plataformatik deskonektatu gabe.
- Gestoria:
  - o Gestoriak ziurtagiri digitala beharko du izan, bai entitatearena edota herritarrarena, NANA...
  - o Gestoriak ez du beharrezko fakturazio elektronikoko plataforman alta ematea.
  - o Gestoriak jakin beharko du, enpresaren ziurtagiri digitala duen eta zein den lotutako ahaldunaren NANA; izan ere, NAN hori izango da hornitzaileek erabiliko dutena euren enpresaren konfigurazioan.
  - o Behin hornitzaileek euren enpresetan erabiltzaile honen NANarekin alta ematen dutenean, gestoriatik, Eusko Jaurlaritzako fakturazio plataformen sartzekoan, enpresa horien fakturak kudeatu ahal izango dituzte.

Erabiltzailea hainbat entitatetan erregistraturik badago, badu enpresaz aldatzea

111111111 - 8801 - 111111111111111111  

Goitibeherako menuan dagokion IFK aukeratuko dugu,

eskuineko botoian sakatuta.

## 3. Konfigurazioa.

**Konfigurazioaren kudeaketa** menura «Konfigurazioaren kudeatzailea» rola duten erabiltzaileek bakarrik izango dute sarbidea eta horrek enpresaren oinarrizko eta segurtasunezko informazioa kudeatzea ahalbidetuko die.


Gida honetan Enpresa anitzentzat/Multienpresentzat honako hau nabarmentzen dugu:

- **Ordezkaritzak:** ordezkaritza/sailen kudeaketa, fakturak horien arabera banatu eta kudeatzeko.
- **Erabiltzaileak.** fakturak kudeatu edo enpresari buruzko datuak aldatzeko (alta eman, ezabatu eta aldatu) ahalmena izango duten erabiltzaileen kudeaketa.

### 3.1 Erabiltzaileak

Hornitzaile bakoitzari lehen erabiltzailea emango zaio, plataforman alta emateko prozesuaren parte gisa, web-atarirako sarbidea izan dezan. Lehenengo erabiltzaile hori alta emateko prozesuan erabilitako agiriaren NANarekin lotuta egongo da eta «Konfigurazioaren kudeatzailea» eta «Fakturen kudeatzailea» rolak edukiko dituzenez, hasieratik, web-atarian edozein operazio egin ahal izango du.

**Erabiltzaileak** aukeraren bitartez (Konfigurazioaren kudeaketa ataleko azpimenua), «Konfigurazioaren kudeatzailea» funtzioa betetzeko baimena daukan edozein erabiltzailek enpresarekin lotutako erabiltzaileen datuak kudeatu ahal izango ditu (erabiltzaile berriak sortzeko, baimenak aldatzeko, eta abar).



#### 3.1.1 Baimenak aldatzea

Erabiltzaile baten baimenak eta bere datu gehienak aldatzeko –adibidez, baimen gehiago emateko/baimenak aldatzeko–, haren xehetasunetara joan behar dugu, erabiltzaileen zerrendaren bidez, eta «Arkatza» aukera sakatu.

Agertuko den formularioak eremu hauek aldatzea ahalbidetuko digu:

- Rola: «Konfigurazioaren kudeatzailea» eta/edo «Fakturaren kudeatzailea» rolak markatzeko edo desmarkatzeko aukera ematen du.
- Ageriko ordezkariak: Erabiltzaileak ageriko ordezkariarik ez baldin badauka, ezingo du fakturarik kudeatu. Enpresa sortzean, besterik ezean, lehenengo ordezkariak orokorra sortzen da, eta ordezkariarik konfiguratu nahi ez badugu, erabiltzaile guztiei esleitu beharko diegu, fakturak kudeatu ahal izan ditzaten. **Inongo delegaziorik agertzen ez bada, bat sortu beharko du, konfigurazioaren delegazio aukeretan eta horrela erabiltzaile berria sortuko du.**



Ordezkaritzak esleitzeko (erabiltzaileentzat agerikoak izateko), hurrengo pausoak eman beharko ditugu:

1. 1. urratsa: Zerrendan ez-ageriko gisa agertzen direnetatik beharrezkoak aukeratu, ordezkariak bakoitzean sakatuz (edo, kasuan kasu, ordezkariak generikoak). Ordezkaritzaren izenean sakatuta, aukeratu gisa agertuko da (beste kolore bateko itzalarekin).

**Ezin ikus daitezkeen ordezkariak (1)**  
DEL\_EU  
DEL\_VITORIA

**Ikus daitezkeen ordezkariak (1)**  
00-COMMON

2. 2. urratsa: «Eskuina» botoiaren bidez, ordezkaritza ageriko bilakatuko da.  
Azken emaitza:  
**Ikusgarritasuna**

---

**Ezin ikus daitezkeen ordezkariak (1)**

**Ikus daitezkeen ordezkariak (1)**  
00-COMMON  
DEL\_EU  
DEL\_VITORIA

- NANA edo ziurtagiriaren Id-a: Web-atarira sartu ahal izateko, ziurtagiri digital bat behar dugu eta ziurtagiri horrek beti barne-identifikatzaile bat izango du. Eremu horretan, barne-identifikatzaile horren balioa adierazi beharko da. (Datuen balioa ezagutzeko, kontsultatu ziurtagiria jaulki duen enpresarekin). Ezinezkoa da plataforman ziurtagiri-identifikatzaile bereko bi erabiltzaile izatea.

### 3.1.2 Erabiltzaile berriei alta ematea

Erabiltzaileei alta emateko formularioa aldatetak egitekoaren antzekoa da. Datuak berdin-berdin betetzen dira, baina kasu honetan, erabiltzaileari barne-kode bat esleitu beharko zaio. Hori garrantzitsua ez dela ematen duen arren, batzuetan plataformaren barne-prozesuetarako erabiltzen da. Erabiltzailearen barne-kode horrek ezin du izan plataforman dagoeneko jasota dagoen beste baten berdina. Beraz, agian balio bat baino gehiagorekin probatu beharko dugu.

